

PORTUGALETE

Ibar Ezkerra
Ikastoleak
jardunaldiak
gertau ditu

Irene Berro

Ibar Ezkerra Ikastola politetnikoaren lehenengo urtea da hau, eta hainbat ekintza batuko dituan jardunaldiak gertau ditu. Maiatzaren 27an —bihar— hasi eta maiatzaren 30ean amaituko dira jardunaldiak, eta Asti-Leku ikastolako aretoan izango dira.

Hasteko, lanbide heziketa eta euskerearen ganekeo berbaldia gertau dabe, Iñaki Mujika Hezikuntza Saileko Lanbide Heziketako zuzendaria eta Andolin Eguzkitza euskaltzainaren eskutik. Arrastiko zazpiurretan izango da, bihar.

Maiatzaren 28an eta 29an, barriz, Repelaga auzoko San Kristobal parrokiaren ondoan dagoen ikastola politetnikoak, goizeko hamaiketarik arrastiko zazpiurretara atek zabaliak eukiko ditu bertara joan gura daben guraso, ikasle, irakasle eta jente guztiaendako. Egitarau honegaz amaitzeko, Elai-Alai fundazioak Deustuko Unibertsidadeko Soziologia Sailari ezkerrealdeko enpleguaren ganean agindutako ikerketek oinarri, mahai-ingurua egingo dabe. Arrastiko zazpiurretan izango da hori be, Asti Leku ikastolako aretoan.

Ibar Ezkerra ikastola politetnikoak ikasturte honetan abian ipini daben proiektu barria da. Portugaletako Asti-Leku ikastoleak, Santurtziko Bihotz Gaztea ikastoleak eta Elai-Alai fundazioak sortu eben, lanbide heziketari eta euskereari jagokonez egoan hutsunea ikusita. Halandaze, Ibar Ezkerra ikastola politetnikoak DBHko titulua lortu ez dabenentzat lanbide hastapeneko modulua eskaintzen dau bakarrik; baina datorren ikasturtean, barriz, informatika sistemetan administrari ikasi gura dabenentzat goi mailako zikloa eskainiko dabe. Danetara, hiru ikasle talde eukitea itxaroten dabe, aurtengo moduan, datorren ikasturtean lanbide hastapeneko modulua emoteko asmoa daukielako.

Martxan da 'Bizkaia Natural'

KANPAINEA. Bizkaiko hainbat eskualdetan turismoa bultzatzeko asmoagaz autobus informatibo bat ibiliko da Euskal Herriko uri eta herrietan

Irene Berro

Asteon aurkeztu dabe Bilbon aurrerantzean Bizkaiko eta Euskal Herriko kaleetan barrena egingo daben Bizkaia Natural kanpaina. Bizkaiko diputazinoko zuzendari Joseba Escibano eta kanpainan parte hartuko daben eskualdeetako teknikoek egin eben aurkezpena. *Bizkaia Natural* kanpaina aurrera erateko, Enkarterriko Enkarterrak, Durangaldeko Urkiola Partzuergo Turistikoa, Arratialeko Gorbeialde Partzuergo eta Busturialdeko Urremendik indarrak batzea erabagi dabe, eta guztien artean Bizkaiko eskualde batzuetan turismoa sustatuko dauen kanpaina gertau dabe. Urdaibai-Busturialdea, Gorbeialdea, Urkiola-Durangaldea eta Enkarterri. Horreek dira kanpainaren bitartez bultzatu gura diran eskualdeak. Kontu hau, dana dala, ez da barria. Duela hiru bat urte, Eusko Jaurlaritzak, Turismoaren Sustapenerako Bizkaiko Diputazinoko zuzendaritzak eta turismo bulegoak zituen herri batzuen artean, Bizkaiko Turismoa bultzatzeko Bizkaia hirutan banatzea erabagi eben. Bizkaia Metropol, Bizkaia Kosta eta Bizkaia Natural izan ziran zatiketa horretatik urtendakoak.

Bizkaia Natural kanpainearen helburua Bizkaiko gune naturalak eta eragin sozioekonomikodun guneak sustatzea da lehenengo. Aldi berean, indarrak batu gura izan ditue giza baliabide eta ekonomikoak modu probetxagarrienean erabilteko. Eskualde bakotxak bere kabuz ezingo leukela halako kanpainarik gertau pentsau eben, eta horregaitik erabagi eben lehen aitatutako erakundeak batzea.

Bizkaia Natural kanpainak jakin eragin ebenez, bertara joan diran bisitariak gehien eskatu daben informazioa ostatu ganekoa izan da. Holan, aitatutako eskualdeetara joaten diranen artean nabarmena da toki edegi eta naturalen eskari handia. Koldo Goitia Gorbeialdeko Turismo teknikariaren berbetan ganera, «eskaera hori dezente handitu da azken urteotan». Horri erantzuteko Busturialdean, Durangaldean, Enkarterrin eta Gorbeialdean gune berde eta natural ugari dagozala esan eban Goitiak. Besteak beste, ondorengo gune



LUIS JAUREGIALTZO / ARGAZKI PRESS

AUTOBUSA. Ingalaterrako autobusen antzerakoa da 'Bizkaia Natural' kanpainakoa.

babestuak: Urkiola, Urdaibai, Gorbeia, eta laster izango dana, Armañon.

Inguru honeetako
turista klasea

Bizkaia Natural kanpainako antolatzaileek adierazo ebenez, paraje horreetara joaten dan jentearen artean % 45 lagunek edo senitartekoek emondako aholkuak jarraituz joaten da. Horreetatik % 41 barriro be bueltau egiten da. %14ak, barriz, komunikabideen eta makina bat sustapen kanpainaren bitartez izan du toki horren barri. Jenteak joateko gehien erabilten dauen garraioa autoa ei da, eta joaten diran taldeak lau pertsonak osotzen ditue. Udan familiak joaten dira, eta lagun taldeek eta bikote gazteek urteko edozein denboraldi aukeratzen dabe. Halandaze, lau zonaldeek daukiezan bezeroen batz besteko adina hogeita hamabi urtekoa da. Joaten diranen

%54ak 30-45 urte ditue, %24ak 20-30, eta %22ak 45-65 urte bitartean.

Bizkaia Natural kanpainearen antolatzaileek jakin arazo ebenez, asko eta asko dira aitatutako zonetariko baten egon ostan pozik eta itzultzeko asmoagaz geratzen diranak. *Bizkaia Natural* Euskal Herriko bertako jentearantz egindako kanpaina da. Izan be, bizkaita-

ESKUALDEAK

Urdaibai-Busturialdea, Gorbeialdea, Urkiola-Durangaldea eta Enkarterri dira kanpainan aukeratutako eskualdeak

ESKAEREA

Bisitariak gehien eskatu daben informazioa senderismo ibilbideen eta ostatu ganekoa dala esan dabe kanpainakoek

rrak, gizpukoarrak eta arabarrak dira joaten diranen artean nagusi. Halandabe, kanpaina Euskal Herrikan kanpora zabalduko dabela esan eban Goitiak. Haren berbetan, «hemengo jente asko joaten da Kantabriako makina bat herritara oporrrak pasetan, eta hemendik sekula ez jake egin hangoei hona etorteko eskaintzea». Hori dala eta, *Bizkaia Natural* eko autobusa asteburu honetan Santander ingurura eroango dabela aurreratu eban.

Bizkaiko lau eskualdeok eazgutu arazoteko asmoagaz, material mordoa atara dabe *Bizkaia Natural* ekoek. Ingalaterrako autobusen tankerakoa dan autobusaz ganera, Interneten be kanpainearen barruan dagozan eskualdeetako web guneak batzen dituan orrialdea ipini dabe martxan: *bizkaianatural.net*. Ganera, autobusak bisitetan dituan tokietan jenteari emoteko txostena be prestatu dabe. Bertan, eskualde bakotxean ikusi leitekezan tokiak azaltzen dira. Horrezaz batera, kamisetak, posterrak eta arkatzak banatzeko asmoa agertu eben.

DEMA - EMPRESA GARAPENA

Bizkaiko Foru Aldundiko Lan eta Trebakuntza Sailaren menpe dagoen Erakundea

DEIA EGITEN DU

Demak hurrengo eskola ikastarorako zabalitzen duen hezikuntza eta eskola programazio zerbitzuen azpikontratazioarako eta "TEKNIKARI KOMERTZIALEN GOI ESKOLA"ren arteketak akademikoaren laguntzarako Lehiaketak

Lehiaketa honen oinarriak eta dokumentazioa Demaren bulego nagusietan jaso daitezke, Barakaldoko Elkartearen, Fanderia kalea, 1.

Parte hartzen duten enpresek euren eskaintzak Demaren bulego nagusietan aurkeztu beharko dituzte, 2002.eko ekainaren 7ko 14:00ak baino lehenago.

Lehiaketa honekin zerikusia duen edozein informazioarako Demarekin kontaktuan jartzeko modua dago 94 - 418 90 55 telefonon (Camino andereñoa), edo dema@demabiz.com e-mailean

Lehiaketaren irabazleak iragarki hau ordaindu beharko du.